

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 3322

*AGINDUA, 2026ko uztailaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beken, laguntzen eta subsidioen oinarriak eta horien deialdia egiten baita 2026-2027 ikasturterako.*

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak –abenduarien 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak– 16. artikuluan ezartzen duenez, «Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe».

Halaber, herritar guztiek dute hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntzako askatasuna, eta botere publikoen zeregina da dauden mugak edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea, hezkuntzara berdintasun egoeran iritsi ahal izateko.

Horrenbestez, aintzat hartu behar dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzei buruz indarrean dauden legeak, hain zuzen ere, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legea. Halaber, adierazi behar da Hezkuntza Sailaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak deialdi hau jasotzen duela 1. helburu estrategikoa betetzeko ardatz estrategikoen eta dirulaguntza-lerroen barruan. Plan hori helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/dirulaguntzen-estrategia-plana/>

### EBAZTEN DUT:

#### 1. artikulua.– Xedea.

1.– 2026-2027 ikasturterako, ondoz ondoko emakida-araubidean, honako beka eta laguntza hauek iragartzen dira, unibertsitate-graduaren mailatik beherako (eta ez baliokiderako) ikasketetarako, hezkuntza-sistemako honako irakaskuntza hauetako ikasleentzat:

a) Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak.

b) Batxilergoa, Lanbide Heziketa, hizkuntza-ikasketak, Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionalak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza profesionalak eta kirol-irakaskuntzak.

2.– Agindu honen eranskinean ageri diren deialdiaren oinarriak onartzen dira, honako egitura honekin:

a) I. kapitulua: Irakaskuntza-maila hauetarako ikasketa-laguntzak: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak.

b) II. kapitulua: Irakaskuntza-maila hauetarako ikasketa-bekak: Batxilergoa, Oinarrizko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa, irakaskuntza artistiko profesionalak, kirol-irakaskuntzak, hizkuntza-ikasketak.

c) III. kapitulua: Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzako laguntza eta sorospen espezifikoak.

d) IV. kapitulua: Aurreko kapituluetan aipatzen diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako (eta ez-baliokideetako) hezkuntza-sistemako ikasketak egiteko beken eta laguntzen xedapen komunak.

## 2. artikulua.— Kreditu erabilgarria.

72.000.000 euro bideratuko dira helburu horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako finkatutako aurrekontu-partiden kontura.

Behar izanez gero, adierazitako zenbatekoak handituko dira, kontuan harturik ebazteko dauden eta ebazpen-proposamena duten eskabideen zenbatekoa, eta horiek ebatzi baino lehenago. Hezkuntza Politiketako sailburuordearen ebazpen baten bidez emango da horren berri, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 14a.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

## ERANSKINA

2026-2027 IKASTURTERAKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKETETARAKO  
IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK

## I. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-MAILA HAUETARAKO IKASKETA-LAGUNTZAK: HAUR HEZKUNTZA,  
LEHEN HEZKUNTZA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ETA MUSIKAKO ETA  
DANTZAKO OINARRIZKO IRAKASKUNTZAK

1. artikulua.– Laguntza jaso dezaketen ikasketak.

Kapitulu honetan jasotzen diren ikasketa-laguntzak irakaskuntza hauetakoren bat egiten duten ikasleei bideratuta daude:

- a) Haur Hezkuntza.
- b) Lehen Hezkuntza.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- d) Musikako eta dantzako oinarrizko irakaskuntzak.

2. artikulua.– Laguntzaren osagaiak.

Kapitulu honetan jasotako ikasketa-laguntzek osagai hauetakoren bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

- a) Kuotaren osagaia.
- b) Ikasmaterialaren osagaia.
- c) Jantokiaren osagaia.

3. artikulua.– Kuota-osagaia, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleentzat.

1.– Osagai honek ezingo du inolaz ere gainditu 2026-2027 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxean ikasleak ordaindu behar duen kuota.

2.– Kontzeptu honengatik kuota ordaintzen ez duten ikastetxeetan ez da egongo.

3.– Hauek izango dira zenbatekoak:

a) 0 eta 1 urte arteko ikasleak: 90 euro 2026-2027 ikasturtean ikaslea ikastetxera joaten den hilabete bakoitzeko –gehienez ere 10 hilabete–.

b) 2 urtekoen gelako ikasleak: 200 euroko ordainketa bakarra. Ez da egongo ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxeetan eta kontzeptu honengatik kuota ordaintzen ez duten ikastetxeetan.

4.– Bekaren osagai hori emateko, familia/bizikidetzaren unitatearen errentak ezin du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 1. muga.

4. artikulua.– Eskola-materialen osagaia.

1.– Osagai hau ikasketa-maila guztiei emango zaie, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari izan ezik.

2.– Ezingo dute osagai hau eskuratu baldin eta «Curriculumak garatzeko material didaktikoa-ren eta bitartekoen programari» uko egiten badiote ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleak.

3.– Hauek izango dira zenbatekoak:

- a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa: 78 euro.
- b) Lehen Hezkuntza: 117 euro.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 159 euro.
- d) Musikako eta dantzako oinarrizko ikasketak: 159 euro.

4.– Egoera hauetan ez dira zenbateko horiek emango:

a) Ikastetxe publikoetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako ikasleak, eta hau izango da zenbatekoa:

- 38 euro lehen eta bigarren mailarako.
- 50 euro hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailarako.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, baldin eta ikastetxe publikoetan matrikulatuta badaude; halakoetan, 60 euro emango dira.

5.– Bekaren osagai hori emateko, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin ditu gainditu 24. artikuluan zehaztutako muga hauek:

- a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa: 2. muga.
- b) Gainerako irakaskuntzak: 3. muga.

5. artikulua.– Jantokiaren osagaia.

1.– Osagai hau Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako (2 urtekoen gela), Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei emango zaie, baldin eta jantokia erabiltzen badute.

2.– Osagai hau baliatzeko eskubidea izateko, ikasleak jantoki-zerbitzua erabili beharko du eguerdian, eta ikasturtean jantokira 20 egunetan baino gehiagotan joan izana justifikatu beharko du.

3.– Osagai honen zenbatekoa honela kalkulatu da: jantokira doan egun-kopurua –gehienez ere 178 egun– bider ordaindutako prezioa, betiere egunean 4,60 eurotik beherakoa bada. Hortik gorakoa izanez gero, azken kopuru hori hartuko da erreferentziazat osagai honen zenbatekoa kalkulatzeko.

4.– Edonola ere, osagai horrengatik eman beharreko gehieneko zenbatekoa 818,80 euro da.

5.– Bekaren osagai hori emateko, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin ditu gainditu 24. artikuluan zehaztutako muga hauek:

- a) Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako ikasleak (2 urtekoen gela): 1. muga.
- b) Gainerako irakaskuntzak: 2. muga.

## II. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-MAILA HAUETARAKO IKASKETA-BEKAK: BATXILERGOA, ERDI- ETA GOI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETA, IRAKASKUNTZA ARTISTIKO PROFESIONALAK, KIROL-IRAKASKUNTZAK, HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAK ETA OINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

6. artikulua.— Zer irakaskuntza egiteko eska daitekeen beka.

Kapitulu honetako bekak irakaskuntza hauetara daude bideratuta:

a) Batxilergoa.

b) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa.

c) Irakaskuntza artistiko profesionalak.

d) Kirol-irakaskuntzak.

e) Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-ikasketak, urrutiko modalitatea barnean dela.

f) Oinarrizko mailako Lanbide Heziketa.

7. artikulua.— Bekaren osagaiak.

Deialdi honetan araututako bekek osagai hauetako bat edo gehiago eduki ahal izango dute:

a) Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

b) Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

c) Oinarrizko bekaren osagaia.

d) Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

e) Zenbateko osagarriaren osagaia.

8. artikulua.— Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.— Kapitulu honen 6. artikuluen a) letratik d) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.— Zenbatekoa 1.700 eurokoa izango da.

3.— Osagai hau aurrez aurreko irakaskuntza eta matrikula osoa egiten duten eskatzaileei soilik adjudikatzen zaie. Ezingo dute osagarri hori lortu ikasketak gaueko modalitatean, aurrez aurrekoa ez den modalitatean edo matrikula partzialarekin egiten dituztenek, 28.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

4.— Halaber, ezingo dute osagarri hori lortu Lanbide Heziketako ikasleek, ikasketak modalitate DUAL intentsiboan egiten badituzte 2026-2027 ikasturtean.

5.— Familia/bizikidetza unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 1. muga.

9. artikulua.– Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluen a) letratik d) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau, baldin eta aurrez aurre eta matrikula osoarekin ikasten badute.

2.– Zenbatekoa 2.700 eurokoa izango da. Halere, zenbateko hori ez da inoiz izango prestazioaren benetako kostua baino handiagoa.

3.– Osagai hau emateko, irakaskuntza artistiko profesionalak egiten dituzten eskatzaileen kasuan, dantzako erdi-mailako ikasketak izan ezik, eskola-orduak ezingo dira astean 20 baino gutxiago izan. Kontuan hartuko da eskatzailea bizi den herrian edo egunean bertan garraio publikoan joateko eta itzultzeko aukera ematen dion hurbileko beste herri batean ikastetxe egokirik dagoen, baldin eta lekurik badu eta egin nahi dituen ikasketak ematen baditu.

4.– Ikastetxetik hurbilen dagoena edo eskatzailearen gurasoetako edozein ohiko bizilekua dena joko da familiaren helbidetzat, legezko helbidearekin bat ez etorri arren.

5.– Bizilekuari lotutako zenbateko finkoa ordainduko da soilik etxebizitza alokatzeko edo ostaltuetan, ikasle-egoitzetan edo antzekoetan ostatu hartzeko gastuak egiaztatzen badira. Ikaslearen izena ageri den alokairu-kontratuaren kopiaren eta fidantzaren eta lehen hilabeteko alokairuaren ordainketen egiaztagirien bidez egiaztatuko da etxebizitzaren alokairua. Ez dira onartuko odol-kidetasunaren 4. mailara eta ahaidetasunaren 2. mailara arteko senideenak diren etxebizitzaren alokairuko kontratuak.

6.– 23.4 artikuluen arabera, familiaren laguntza ekonomikorik gabe bizitzeko baliabideak dituzten ikasleek ezingo dute eskuratu egoitza-osagaia; izan ere, ohiko bizilekutzat hartuko da ikasturtean zehar izango duten bizilekua, nahiz eta erroldan ageri den bizilekua ez izan.

7.– Familia/bizikidetza unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 2. muga.

10. artikulua.– Oinarrizko bekaren osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluan zerrendatutako ikasketetako edozeinetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 300 eurokoa izango da. Oinarrizko mailako heziketa-zikloak egitekotan, zenbatekoa 350 eurokoa izango da.

3.– Osagai hau bateraezina izango da eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoarekin.

4.– Familia/bizikidetza unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 3. muga.

11. artikulua.– Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluen a) letratik d) letrara bitartean zerrendatutako ikasketetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Errendimendu akademikoaren bikaintasunari lotutako zenbatekoa adjudikatzeko, eskatzaileak egiaztatu beharko du batez beste 8,00 puntuko edo gehiagoko nota lortu duela ikasturtean, sarrera-probetan edo aurretiazko ikasketetan.

3.– Zenbatekoa 50 eta 125 euro bitartekoa izango da, aurreko ikasturtean lortutako batez besteko notaren arabera, honela banatuta:

| Ikaslearen batez besteko nota | Zenbatekoa (euro) |
|-------------------------------|-------------------|
| 8,00 eta 8,49 puntu artean    | 50                |
| 8,50 eta 8,99 puntu artean    | 75                |
| 9,00 eta 9,49 puntu artean    | 100               |
| 9,50 puntu edo gehiago        | 125               |

4.– Osagai hau emateko, aurreko ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan. Bitartean urte akademikoren bat igaro bada ikasketarik egin gabe, eginiko azken ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan. Egiten ari den ikasketen lehen ikasturtea bada, kontuan hartuko da sar-tzeko proba, ikastaro edo ikasketako batez besteko nota.

5.– Familia/bizikidetzaren unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan finkatutako 3. muga.

12. artikulua.– Zenbateko osagarriaren osagaia.

1.– Kapitulu honen 6. artikuluan zerrendatutako ikasketetako edozeinetan matrikulatuta dauden ikasleek jaso ahal izango dute zenbateko hau.

2.– Zenbatekoa 60 eurokoa izango da.

3.– Familia/bizikidetzaren unitatearen errentak ezingo du gainditu 24. artikuluan zehaztutako 2. muga.

### III. KAPITULUA

#### BERARIAZKO HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEHAR DUTEN IKASLEENTZAKO LAGUNTZA ETA SOROSPEN ESPEZIFIKOAK

13. artikulua.– Hartzaileak.

1.– III. kapitulu honetan jasotako laguntzak eta sorospenak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren W67 aplikazioan erregistratutako ikasleei lagunduko diete, jarraian zerrendatzen diren hezkuntza-laguntzako premia espezifikoen tipologiaren bat edo batzuk dituzten ikasleentzat dira:

a) Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak, arreta-defizitaren eta hipe-raktibitatearen nahasmendua (ADHN) duten ikasleak barnean direla, % 25eko edo gehiagoko desgaitasunaren edo jokabide-nahasmendu larriaren ondorioz. Desgaitasun-ziurtagiria behar bezala erregistratuta egon beharko da Hezkuntza Sailaren W67 aplikazioan.

b) Hezkuntza-premia bereziekin lotutako komunikazio- eta hizkuntza-nahasmendu larriak dituzten ikasleak.

c) Autismoaren espektroko nahasmenduari (AEN) lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.

d) Gaitasun intelektual handiarekin lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleak.

2.– 16. artikuluan jasotako jantoki- eta garraio-sorospenak familia ugariako ikasleei baino ez zaizkie emango.

14. artikulua.– Sartutako ikasketak.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzako laguntza eta sorospenetan honako irakaskuntza hauek sartzen dira:

a) Haur Hezkuntzako lehen zikloa, baldin eta bi urte bete badira 2025eko abenduaren 31n.

b) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa.

c) Lehen Hezkuntza.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

e) Batxilergoa.

f) Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak.

g) Oinarrizko mailako heziketa-zikloak.

h) Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren I. tituluaren IV. kapituluaren 3. atalak aipatzen dituen Lanbide Heziketako beste prestakuntza-programa batzuk, baldin eta 33.2 artikuluko baldintzak betetzen badira, eta, oinarrizko mailako heziketa-zikloen kasuan, 89.2 c) artikulukoak.

i) Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzako programa espezifikoak.

15. artikulua.– Sartutako laguntzak.

1.– I. eta II. kapituluetan aurreikusitako laguntza-osagaiez gain, 13.1 artikuluan a), b) eta c) letretan aurreikusitako ikasleentzako laguntzen osagaiak eta zenbatekoak taula honetan adierazitakoak dira:

| Osagaia                                                     | Zenbatekoa (euro) |
|-------------------------------------------------------------|-------------------|
| Irakaskuntza-laguntza                                       | 862 eurora arte   |
| Eskola-garraiorako laguntza                                 | 617 eurora arte   |
| Zereginak ikasteko ikasleentzako ikasmaterialerako laguntza | 204 eurora arte   |
| Pedagogia-berreziketarako laguntza                          | 913 eurora arte   |
| Hizkuntza-berreziketarako laguntza                          | 913 eurora arte   |

Garraiorako laguntzetarako aurreko taulan ezarritako zenbatekoak % 50eraino handituko dira ikasleek % 65etik gorako mugitzeko desgaitasun aitortua badute.

2.– Adimen-gaitasun handiari lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzako laguntzaren xedea izango da –13.1 artikuluan d) lettran jasotakoa– ikasle horientzako programa espezifikoetan izena emateak eta bertaratzeak eragindako gastuak ordaintzea. Laguntza horren zenbatekoa, gehienez ere, 913 eurokoa izango da ikasturteko.

3.– Pedagogia-berreziketarako, hizkuntzaren berreziketarako eta adimen-gaitasun handiari lotutako berariazko programetarako laguntzetan, laguntzaren zenbatekoaren ondorioetarako,



gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua zenbatuko da, eta horri 1. eta 2. apartatuetan finkatutako gehienekoa aplikatuko zaio.

4.– Laguntzak emateko, familia/bizikidetzaren errentak ezin izango du gainditu apartatu hone-tan finkatutako muga, eta haren ondareak ere ezin izango ditu gainditu IV. kapituluko 27. artikuluan finkatutako mugak.

| Kide konputagarrien kopurua | Muga (euro) |
|-----------------------------|-------------|
| 1                           | 12.534      |
| 2                           | 20.416      |
| 3                           | 26.811      |
| 4                           | 31.801      |
| 5                           | 36.089      |
| 6                           | 40.229      |
| 7                           | 44.143      |
| 8                           | 48.031      |
| +1(*)                       | +3.856      |

(\*) 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, (+1) gisa ezarri diren kopuruak gehituko dira.

#### 16. artikulua.– Sartutako sorospenak.

1.– Jantokiko eta eskola-garraioko sorospenen hartzaile izango dira 13.1 artikularen a), b) edo c) letretan jasotako kasuetan dauden eta familia ugarikoak diren ikasleak.

2.– Era berean, zenbateko finkoko sorospen bat ezartzen da hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak eskolatzearen ondoriozko gastu gehigarri orokorretarako (13. artikuluan aipatu da).

3.– Sorospenak eskola-jantokiko eta eskola-garraioko gastuetarako izango dira, honako zenba-teko hauetan:

| Osagaia                                            | Zenbatekoa (euro)  |
|----------------------------------------------------|--------------------|
| Eskola-garraiorako sorospena                       | 617 euro, gehienez |
| Eskola-jantokirako sorospena                       | 574 euro, gehienez |
| Gastu gehigarrietarako zenbateko finkoko sorospena | 400 euro           |

4.– Sorospenak jasoko dituzten ikasleek, I., II. eta III. kapituluetan aurreikusitako laguntza-osa-gaiez gain, horiek lortu ahal izango dituzte, eskola-jantokiko sorospena izan ezik; izan ere, I. eta II. kapituluetan aurreikusitako eskola-jantokiko laguntzaren onuradun ez badira soilik emango da sorospen hori.

5.– Sorospenak emateko, ez dira kontuan hartuko familia/bizikidetzaren unitatearen errenta eta ondarea.

### 17. artikulua.— Betekizunak.

III. kapitulu honetan jasotako laguntzak eta sorospenak emateko, betekizun hauek bete behar dira:

1.— Kapitulu honetako laguntzak eta sorospenak jasoko dituzten ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasle gisa erregistratuta egon beharko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren W67 aplikazio informatikoan eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.— Gaitasun handiko ikasleentzako programa espezifikoetarako, pedagogia-berreziketarako eta hizkuntza-berreziketarako laguntzen kasuan, zerbitzua ematen duen berrezitzaileak edo ikas-tetxeak sinatutako memoria erantsi beharko da, zerbitzu horren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jasoko duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta ikastaroaren hileko eta guztizko kostua. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua hartuko da kontuan.

### 18. artikulua.— Bateriaezintasunak.

1.— Zerbitzu edo funts publikoek edo, hala badagokio, ikastetxeei zerbitzu hori finantzatzeko emandako laguntzek behar bezala estaltzen badituzte gastuak, ez da laguntza edo sorospenik emango. Doako zerbitzu bat estali nahi denean ere ez da laguntzarik eta sorospenik emango.

2.— III. kapitulu honetan jasotako eskola-garraiorako laguntza eta sorospena bateraezinak dira Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioaren erabiltzaile izatearekin eta 164/2023 Dekretuan jasotako banakako laguntzekin (164/2023 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak finantzatuta daukaten eskola-garraioari buruzkoa).

### 19. artikulua.— Familia/bizikidetza -errentaren kenkariak.

1.— Familia/bizikidetza unitatearen errenta zehaztu ondoren, 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

a) Familiako kide konputagarri guztiek ekarritako diru-sarreraren % 50, baldin eta ez badira sostengatzaile nagusiak.

b) 2.000 euro, eskatzailea familia ugarikoa bada.

c) 4.000 euro eskatzailearengatik eta beste horrenbeste neba-arreba bakoitzarengatik, betiere legez kalifikatutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna badute.

d) 1.176 euro eskatzailearen 25 urtetik beherako neba-arreba bakoitzeko, baldin eta familiaren egoitza kanpo bizi bada, unibertsitate-ikasketak direla-eta familiaren egoitza kanpo bizi diren ikasleak bi edo gehiago badira.

e) Familia/bizikidetza unitatearen errentaren % 20, eskatzailea erabateko zurtza eta 25 urtetik beherakoa bada.

f) 500 euro, eskatzailea guraso bakarreko familia batekoa izateagatik. Ondorio horietarako, guraso bakarreko familiazat hartuko da guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuan ezarritakoaren arabera definitutakoa.

2.— Kenkari horiek kontuan hartzeko, egiaztatu beharko da egoera horiek 2025eko abenduaren 31n betetzen zirela.

## IV. KAPITULUA

UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKETATARAKO ETA EZ BALIOKIDEETARAKO  
IKASKETA-BEKA ETA -LAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

20. artikulua.— Betekizun orokorrak.

1.— Deialdi honetan jasotzen diren ikasketek ofizialki aitortuta egon behar dute, eta hezkuntza-administrazioak onartutako ikasketa-planekin bat etorri.

2.— Ikasleek Agindu honetan ezarritako ikasketa-mailaren batean egon beharko dute matrikulatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe baimenduetan.

3.— Bekaren edo laguntzaren xede diren ikasketei dagokien maila bereko edo handiagoko titulu ofizialik ez izatea edo lortzeko legezko betekizunak ez betetzea, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, 32. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

21. artikulua.— Ukapenak.

Egoera hauetan, beka edo laguntza ukatu egingo da:

a) Baimendu gabeko ikastetxe pribatuetakoko ikasleek ez dute ikasketa-laguntzarik jasotzerik izango, horietan egiten diren ikasketak edozein izanik ere; hala ere, ikasketa horietako irakasgai guztietako azterketak ikastetxe ofizialetan egiten badituzte, onartu egingo dira.

b) Baimendu gabeko ikastetxeetako edo Haur Hezkuntzako lehen zikloa irakasteko ikastetxeen erroldan inskribatu gabeko haur-eskoletako ikasleak.

c) Dirulaguntzen onuradun izateko ezgaitzen duen legezko edozein arrazoi izatea edo deialdi honetan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.

22. artikulua.— Beken eta laguntzen zenbatekoa.

1.— Ikasleak zenbat osagai jasotzeko eskubidea duen, bada, osagai horien baturak emango du beka edo laguntzaren zenbatekoa, betiere agindu honetan ezartzen diren arauen arabera. Zenbatekoa ez da inoiz izango zerbitzu bakoitzaren benetako kostua baino handiagoa.

2.— Inork ezin dezake jaso agindu honetan arautzen diren beka edo laguntzetariko bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean agindu honetan aipatzen diren beste ikasketa batzuk egin. Eskatzaile batek beka-eskaera bat baino gehiago aurkeztzen badu, aurkeztutako azken beka-eskaera soilik izapidetuko da.

23. artikulua.— Kide konputagarriak eta familia/bizikidetza unitateko sostengatzaile ekonomiko nagusiak nor diren zehaztea.

1.— Bekaren eta laguntzaren ondorioetarako, hauek dira kide konputagarriak:

a) Eskatzailea.

b) Gurasoak eta, hala badagokio, tutorea edo adingabea zaintzeaz eta babesteaz arduratzen den pertsona; haiek joko dira familiaren sostengatzaile nagusitzat.

2025ean edo 2026an gurasoetako bat hiltzen bada, ez da zenbatuko familia/bizikidetza unitateko kideatzat.

c) 2025eko abenduaren 31n, hogeita bost urte baino gutxiago dituzten neba-arreba ezkongabeak eta hogeita bost urtetik gorakoak, ahalmen urritasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala badute, eta ohiko bizilekuan bizi badira.

d) Gurasoetako edozeinen aurrekoak, baldin eta etxebizitza berean bizi direla egiaztatzen badute dagokion udal-ziurtagiriaren bidez. Hori egiaztatzeko, helbide berean bizi dela adierazten duen errolda-agiria hartuko da baliozkotzat.

e) Harrera iraunkorreko erregimenean edo adopzioarako zaintzan dauden adingabeak.

f) Aparteko zirkunstantziengatik, eskatzaileari harrera ematen dioten beste senide edo familia-loturarik gabeko beste pertsona batzuk.

g) Salbuespen gisa, kide konputagarritzat jo ahal izango dira eskatzailearekin bizi diren beste senide batzuk, eskatzailea zurtza baldin bada, eta, betiere, eskatzaileak behar bezala egiaztatzen badu ekonomikoki haien mende dagoela eta 2025. urtean ez zuela beste sostengatzailearik izan.

h) Eskatzaileek familia/bizikidetza unitate independenteak osatzen badituzte, kide konputagarri eta sostengatzaile nagusitzat hartuko dira eskatzailea eta haren ezkontidea, haren bikotekidea, erregistratuta egon edo ez, edo antzeko harreman baten bidez lotuta dagoena. Kide konputagarriak izango dira, halaber, hogeita bost urtetik beherako seme-alabak, halakorik badago, eta etxebizitza berean bizi badira.

Beraz, kasu horietan guztietan, horien errentak eta ondare higiezinak zenbatuko dira.

2.– Gurasoak legez edo izatez dibortziatuta edo bananduta badaude, bekaren eskatzailearekin bizi ez dena ez da kide konputagarritzat joko; halere, mantenu-pentsio edo konpentsazio-pentsio gisa ordaintzen diren kopuruak familia/bizikidetza unitatearen diru-sarreratzat zenbatuko dira, judizialki onartutako neurrien arabera.

Dena dela, hala badagokio, kide konputagarri eta sostengatzaile nagusitzat joko da ezkontide, bikotekide (erregistratuta egon edo ez) edo antzeko harreman baten bidez lotutako pertsona berria, eta haren errentak eta ondarea familia/bizikidetza unitatearen errenta eta ondarearen barruan sartuko dira. Horrez gain, kide konputagarritzat joko dira bikotekide berriaren ondorengoak, eskatzailearekin bizi badira, bai eta familia/bizikidetza unitateak horietatik jasotzen dituen diru-sarrerak ere.

Halaber, kide konputagarritzat joko da aipatutako datan eskatzailearekin etxe berean bizi den pertsona –diru-sarrera propioak dituen–, nahiz eta haien artean ez izan ahaidetasun-harremanik eta ezin justifikatu alokairuzko etxebizitza partekatzen dutela.

3.– Seme-alaben zaintza-araubidea zaintza partekatua denean, hauek hartuko dira kide konputagarritzat: bekaren eskatzailearen gurasoak, horien seme-alaba komunak eta aipatutako enbizileku berean bizi diren gurasoen aurreko ahaideak ere, betiere udalaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badute; familiaren sostengatzaile nagusitzat joko dira eskatzailearen gurasoak.

4.– Eskatzailea jatorrizko familatik independizatu bada edo zurtza bada eta familia/bizikidetza unitate bat osatzen badu:

a) Kide konputagarritzat joko dira, bekaren ondorioetarako, honako hauek:

– Eskatzailea.

– Haren ezkontidea edo izatezko bikotea, erregistratuta egon edo ez, edo antzeko harreman baten bidez lotutako pertsona.

– Hogeita bost urtetik beherako seme-alabak eta hogeita bost urtetik gorakoak, desgaitasun funtzional fisikoa, psikikoa edo sentsoriala badute eta gurasoen mende bizi badira.

– Foru-araudian onartutako harrera-egoera batean dauden pertsonak; eta inguruabar hori behar bezala alegatu eta egiaztatu beharko da.

– Kide konputagarritzat joko da 2025eko abenduaren 31n eskatzailearekin etxe berean bizi den pertsona –diru-sarrera propioak dituen–, nahiz eta haien artean ez izan ahaidetasun-harremanik eta ezin justifikatu alokairuzko etxebizitza partekatzen dutela.

b) Sostengatzaile ekonomiko nagusiak dira familia/bizikidetza unitatea ekonomikoki mantentzeko diru-sarrera nagusiak eskuratzen dituzten kide konputagarriak.

c) Familiaren egoitzatzat joko da eskatzailea ikasturtean bizi dena; kasu horretan, ez da egoitza-osagaia emango.

d) Honela egiaztatu beharko du familia-independentzia:

– Eskatzaileak bere bizilekuan egon beharko du erroldatua, eta ez gurasoen etxean (erosi-tako edo alokatutako etxebizitza batean, bakarrik edo pisu partekatu batean; eta bizilekua ezin da senide batena izan, 4. mailara arteko ahaidetasuna odol bidez edo 2. mailara arteko ahaidetasuna ezkontza bidez). Halere, alokairuaren zerga-aitorpena egiaztatzen bada, odol bidezko eta ezkontza bidezko ahaidetasun-maila horiek ere onartuko dira.

Erabateko zurzutasunaren kasuan, nahikoa izango da hori egiaztatzeko ziurtagiria.

e) Ekonomikoki independente dela egiaztatu beharko du, gastuak (janaria, arropa, etxebizitza, garraioa) ordaintzeko behar beste ekonomia-baliabide dituela ziurtatuz. Ondorio horietarako, eskatzailearen baliabide ekonomikoak kalkulatzeko, soilik haren diru-sarrerak batuko dira; hau da, ez dira kontuan hartuko ohiko bizilekuan bizi den beste edonoren sarrerak. Diru-sarrerak 1. mugaren parekoak edo txikiagoak baldin badira, pertsona horrek Lanbideak kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako dirulaguntza osagarria eskatu ahalko ditu, bai eta beste laguntza batzuk ere. Hortaz, dirulaguntza horiek eskatu dituela eta zer egoeratan dauden egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu. Gastuak ordaintzeko, beste diru-sarrera bat dagoela egiaztatzeko xedez, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Eskatzaileak aurkeztu dituen diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea, hori ziurtatzeko agiriarekin batera. Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

– Zerga-egiaztagiria, gurasoek berarengatik ez dutela zerga-kenkaririk egiten berresteko.

Eskatzaile batekonomikoki independentea dela jo ahal izateko, eskatzailearen guraso edo legezko tutoreetako batek ere ezin du horri lotutako zerga-kenkaririk egin PFEZaren aitorten-likidazioan.

Eskatzaileak emantzipazio-programa baten laguntza jasotzen badu, eta horretan janaria eta ostatua sartuta baldin badaude, independentzia familiarraren betekizuna betetzetik salbuetsita egongo da, baina independentzia ekonomikoari lotutako agiriak aurkeztu beharko ditu.

24. artikulua.– Errenta-mugak.

Honako errenta-muga hauek aplikatuko dira beka eta laguntzen osagaiak emateko:

a) I. kapituluaren jasotako ikasketetarako:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 1. muga gainditu.

– Haur Hezkuntzako mailako 2. zikloan, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

– Gainerako irakaskuntzetan:

1.– Ikasmaterialaren osagairako, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 3. muga gainditu.

2.– Jantokiaren osagairako, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

b) II. kapituluari jasotako ikasketetarako:

– Errentari lotutako zenbateko finkoaren osagairako, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 1. muga gainditu.

– Bizilekuari lotutako zenbateko finkoaren osagairako eta zenbateko osagarriko, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 2. muga gainditu.

– Oinarrizko bekaren zenbatekoa eta errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoa emateko, familia/bizikidetza unitatearen errentak ezin izango du 3. muga gainditu.

| Kide konputagarrien kopurua | 1. muga (euro) | 2. muga (euro) | 3. muga (euro) |
|-----------------------------|----------------|----------------|----------------|
| 1                           | 9.315          | 13.898         | 15.567         |
| 2                           | 13.971         | 23.724         | 26.573         |
| 3                           | 18.629         | 32.201         | 36.070         |
| 4                           | 23.286         | 38.242         | 42.836         |
| 5                           | 27.012         | 42.743         | 47.878         |
| 6                           | 30.738         | 46.142         | 51.685         |
| 7                           | 34.463         | 49.503         | 55.451         |
| 8                           | 38.190         | 52.850         | 59.199         |
| +1(*)                       | +3.725         | +3.340         | +3.740         |

(\*) 8tik gorako kide konputagarri bakoitzeko, errenta-mugetan (+1) gisa ezarri diren zenbatekoak gehituko dira.

## 25. artikulua.– Familia/bizikidetza unitatearen errenta kalkulatzeko.

1.– Bekaren edo laguntzaren ondorioetarako, familia/bizikidetza unitatearen errenta kalkulatzeko, familia/bizikidetzako kide konputagarri bakoitzaren errentak batuko dira, baldin eta edozein motatako diru-sarrerak baditu. Errenta horiek kalkulatzeko, kontuan hartuko dira hurrengo apartatuetan adierazten direnak, eta bat etorrita aplikatu beharreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudi erregulatzailarekin. 2026-2027 ikasturteko ikasketa-beka eta -laguntzen ondorioetarako, 2025eko ekitaldia zenbatuko da.

2.– 2025eko ekitaldian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira. Zerga-oinarri orokor osoak edo haren zati batek jarduera ekonomikoaren etekinak baditu, eta etekin horiek ikur negatiboa badute, 0 balioarekin erabiliko dira. Gainerako zenbatekoari kuota likidua kenduko zaio. PFEZren aitorpenean sartu ez diren diru-sarrerak eta laguntzak aurreko formularen bidez lortutako zenbatekoari gehituko zaizkio.

3.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2025eko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrerak guztiak batuko dira, baita ohiko etxebizitza ez diren hiri-ondasunen etekina ere –PFEZaren ondorioetarako konputagarria–, betiere 2025eko ekitaldirako zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik kenduko dira konturako atxikipenen zenbatekoa eta kasu bakoitzean aplikatzekoa den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arau erregulatzailerak adierazten dituen gastu kengarri guztiak.

4.– Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak edo zerga horretatik kanpo aitortutakoak txikiagoak badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo urte horretan errol-datuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera familia/bizikidetza unitateari legokiokeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk edo beste erakunde edo elkarte ongile batzuek, halakorik balego).

5.– Ez da diru-sarreratzat hartuko administrazio publikoek emandako ikasketa-beken edo -laguntzen zenbatekoa.

6.– Harrera-familiatan diren ikasleei dagokienez, honako hau joko da errenta garbitzat: ikasleak 2025 ekitaldian jasotzen dituen diru-sarrerak, hots, Foru Aldundiak emandako laguntzak. Kasu horietan, harrerari buruzko agindua eta Foru Aldundiak erabakitako harrerako baldintzak aurkeztu beharko dira.

7.– Salbuespenezko inguruabarrak direla eta, eskatzaileak zailtasunak baditu frogabideak eskuratzeko, eta ezin baditu egiaztatu familia/bizikidetza unitatearen 2025eko ekitaldiko baliabide ekonomikoak, beharrezkoa izango da egoera azaltzea eta dokumentu bidez egiaztatzea familia/bizikidetza unitateak 2026ko ekitaldian dituen bizibideak.

## 26. artikulua.– Kenkariak.

1.– Hurrengo paragrafoetan adierazten diren kenkariak kontuan hartu ahal izateko, egiaztatu beharko da kenkarirako eskubidea ematen duten egoerak 2025eko abenduaren 31n betetzen zirela.

2.– Familia/bizikidetza unitatearen errenta zehaztu ondoren, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, honako kontzeptuengatik dagozkion zenbatekoak kenduko dira:

a) Familia/bizikidetza unitatearen errentaren % 20, eskatzailea erabateko zurtza eta 25 urtetik beherakoa bada.

b) Familia unitatearen beste edozein kide konputagarri ordaindutako errenten % 50, baldin eta ez bada sostengatzaile nagusia.

c) Familia ugariak izateagatik aplikatuko den kenkaria.

Kide konputagarria den neba-arreba bakoitzarengatik 525 euroko kenkaria egingo da familia/bizikidetza unitatearen errentaren gainean, familia-egoitzan bizi bada, eskatzailea barnean dela, baldin eta kategoria orokorreko familia ugariak badira; kopuru hori 800 eurokoa izango da kategoria bereziko familia ugarietan. Eskatzailea familia ugariaren titularra bada, aipatutako kopuruak familia osatzen duen seme-alaba bakoitzarengatik kenduko dira.



d) Desgaitasunagatiko kenkaria:

– 1.811 euro neba-arreba bakoitzeko, edo eskatzailearen seme-alaba bakoitzeko edo eskatzailearengatik beragatik, betiere legez kalifikatutako % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa badu.

– 2.881 euro neba-arreba bakoitzeko, edo eskatzailearen seme-alaba bakoitzeko edo eskatzailearengatik beragatik, betiere legez kalifikatutako % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa badu.

e) 1.176 euroko kenkaria egingo da eskatzailearen hogeita bost urtetik beherako neba-arreba bakoitzeko, baldin eta familiaren egoitzatik kanpo bizi bada, unibertsitate-ikasketak direla-eta familiaren egoitzatik kanpo bizi diren ikasleak bi edo gehiago badira.

f) 500 euro, eskatzailea guraso bakarreko familia batekoa izateagatik. Ondorio horietarako, guraso bakarreko familiazat hartuko da guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuan ezarritakoaren arabera definitutakoa.

27. artikulua.– Ondare-mugak.

1.– Beka ukatu egingo da, aurreko artikuluetan xedatutakoaren arabera kalkulaturako familia/bizikidetzaren unitatearen errenta edozein dela ere, baldin eta familia/bizikidetzaren kide konputagarri guztien ondarea adierazten duten elementuen balioak, 2025eko abenduaren 31n, muga hauetakoren bat gainditzen badu.

2.– Hiri-finken kasuan, familia/bizikidetzaren kide konputagarrienak diren hiri-finken katastro-balioen batura –ondasun higiezin guztienak kalkulaturak ezin izango da 47.200 eurotik gorakoa izan. Zenbateko horretan ez dira honako hauek kontuan hartuko:

– Ohiko etxebizitza eta haren trastelekua.

– Jabetza soileko ondasun higiezinak, gozamina familia/bizikidetzaren unitatetik kanpoko pertsona bati badagokio. Egoera hori Jabetza Erregistroko ohar soil batekin egiaztatu beharko da, zeinak egungo data izan beharko baitu.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean dauden hiri-higiezinaren katastro-balioa kalkulatzeko, katastro-balioa bider 0,36 egingo da.

b) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden hiri-finken katastro-balioa kalkulatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

Katastroko azken berrikuspenaren data eraginkorra 1990eko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra artekoa baldin bada, katastro-balioak 0,49 koefizienteaz biderkatuko dira. Berrikuspen horren eguna 2002ko abenduaren 31ren ostekoa baldin bada, honako koefiziente hauek erabiliko dira katastro-balioak biderkatzeko:

0,43 koefizientea, 2003an berrikusi direnetarako.

0,37 koefizientea, 2004an berrikusi direnetarako.

0,30 koefizientea, 2005ean berrikusi direnetarako.

0,26 koefizientea, 2006an berrikusi direnetarako.

0,25 koefizientea, 2007an berrikusi direnetarako.

0,25 koefizientea, 2008an berrikusi direnetarako.



0,26 koefizientea, 2009an berrikusi direnetarako.

0,28 koefizientea, 2010ean berrikusi direnetarako.

0,30 koefizientea, 2011n berrikusi direnetarako.

0,32 koefizientea, 2012an berrikusi direnetarako.

0,34 koefizientea, 2013an berrikusi direnetarako.

0,36 koefizientea, 2014 eta 2021 artean berrikusi direnetarako, biak barne.

0,35 koefizientea, 2022an berrikusi direnetarako.

0,34 koefizientea, 2023an berrikusi direnetarako.

0,33 koefizientea, 2024an berrikusi direnetarako.

0,29 koefizientea, 2025ean berrikusi direnetarako.

Nafarroako Foru Komunitateko higiezinaren katastro-balioa 0,50 koefizienteaz biderkatuko da.

Eskatzaileak higiezinaren katastro-berrikuspena zer urtetan egin den ziurtatu beharko du, katastro-balioaren koefizienteak aplikatu ahal izateko.

### 3.– Landa-finkak.

a) Landa-finketan dauden eraikinen katastro-balioen batura –barnean hartuta izaera bereziko ondasun higiezinak eta kanpoan utzita familiaren ohiko etxebizitza den eraikinaren katastro-balioa ezin izango da 47.200 eurotik gorakoa izan. Eraikin horiei aurreko apartatuan ezartzen diren koefiziente biderkatzaileak aplikatuko zaizkie, eginiko azken katastro-berrikusketaren urtearen arabera.

b) Familia/bizikidetza unitatearen kide konputagarriek dituzten landa-finken katastro-balioen batura, eraikinen katastroko balioak kenduta, gehienez, 14.450 eurokoa izango da kide konputagarriko.

4.– Balore higigarriak. Eskatutako ikasketa-beka edo -laguntza ukatu egingo da, noiz eta familia/bizikidetza unitatearen kapital higigarriaren etekin garbi murriztuen batura gehi ondare-irabazi eta -galeren saldo garbi positiboa 1.900 eurotik gorakoa denean.

Batura horretan, ez dira sartuko ohiko etxebizitza erosi, birgaitu edo alokatzeko jasotako dirulaguntzak, oinarrizko emantzipazio-errenta eta jolas, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan lortutako sarien zenbatekoa (eskudirutan edo gauzaz), 1.500 euroko zenbatekoraino. Aipatutako sarietatik eratorritako ondare-irabaziak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiarekin bat zenbatuko dira.

5.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian xedatutakoaren arabera zehaztuko da ondarea adierazteko elementuen balioa, 2025eko abenduaren 31ko balioagatik.

6.– Familia/bizikidetza unitatearen kide konputagarriek aurreko apartatuetan zehaztutako ondare-elementu bat baino gehiago badituzte, elementu bakoitzaren balio-ehunekoa kalkulatu da dagokion mugarekiko.

Aipatutako ehunekoen batuketak ehun gainditzen duenean, ukatu egingo da ikasketa-beka edo -laguntza.

7.– Merkataritza-, industria- edo lanbide-jarduerak. Eskatutako ikasketa-beka edo -laguntza ukatu egingo da, halaber, egiaztatzen denean familia/bizikidetza unitateko kide konputagarriek jasotako eta jarraian adierazitako diru-sarreraren baturak 155.500 euroko zenbatekoa gainditzen duela:

a) Ekonomia-jardueretatik datozen diru-sarrerak, zuzeneko zenbatespenean edo zenbatespen objektiboan.

b) Kide konputagarriek nortasun juridikorik gabeko erakundeen edo beste edozein erakunde juridikoren bidez egindako jarduera ekonomikoetan parte hartzean lortutako diru-sarrerak, jardueren diru-sarrera osoei parte-hartzearen ehunekoa aplikatu ondoren.

8.– Aurreko paragrafoetan aipatutako elementuen balioa zenbatzeko, familia/bizikidetza unitateko edozein kide konputagarri dagozkion elementuen balioaren % 50 kenduko da, sostengatzaile nagusiak alde batera utzita.

## 28. artikulua.– Betekizun akademikoak.

### 1.– Ikasketa-mailaren arabera, hauek izango dira betekizun akademikoak:

a) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan, soilik egiaztatu beharko da ikaslea 2026-2027 ikasturterako matrikulatuta dagoela.

b) Oinarrizko mailako heziketa-zikloetan eta musikako eta dantzako oinarrizko ikasketetan, egiaztatu beharko da ikaslea 2026-2027 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ikasturtea ez dela errepikatzen ari.

c) Batxilergoan, musika eta dantzako ikasketa profesionaletan, Lanbide Heziketako erdi-mailako graduari, arte plastikoaren eta diseinuaren erdi-mailako graduari eta kirol-ikasketen erdi-mailako graduari, egiaztatu beharko da ikaslea 2026-2027 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ikastaroa errepikatzen ari. Batxilergoko lehen mailako ikasleek 5,00 puntuko batez besteko nota lortu beharko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan edo, hala badagokio, sartzeko proban.

d) Lanbide Heziketako goi-mailako graduari, arte plastikoaren eta diseinuaren goi-mailako graduari eta kirol-ikasketen goi-mailako graduari, egiaztatu beharko da ikaslea 2026-2027 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ikastaroa errepikatzen ari. Irakaskuntza horietako lehen mailako ikasleek 5,00 puntuko batez besteko nota lortu beharko dute Batxilergoko bigarren mailan edo sartzeko proba edo ikastaroan, hurrenez hurren, edo goi-mailako heziketa-ziklora sartzeko aukera ematen duen erdi-mailako heziketa-zikloaren azken kalifikazioan.

Ikasketa horietako bigarren mailako ikasleek aurreko ikasturtean (2025-2026) egindako ikasketen % 85 gainditu beharko dute gutxienez.

e) Hizkuntza-ikasketetan, egiaztatu beharko da ikaslea 2026-2027 ikasturterako matrikulatuta dagoela eta ez dela ikastaroa errepikatzen ari. Beka lortu ahal izango da dagokion ikasketa-planean ezarritako urte-kopuruan eta gehienez ere 2 hizkuntzatarako, betiere aldi berean egiten ez badira.

Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako, eskatzaileak ebaluazio- eta kalifikazio-deialdiei uko egiten badie, ez da ulertuko ikasturtea errepikatzea denik.

2.– Ikasturteren bat ikasketarik egin gabe igaroz gero, egin den azken ikasturtearekiko eskatuko dira adierazi diren betekizunak.

3.— Ikasketa guztiak edo zatiren bat beka baten bitartez egin badira eta ikasketak aldatzen badira, ezin izango da bekarik jaso aldaketa horrek hezkuntza-prozesuaren barruan urte bat edo gehiago galtzea badakar. Ez da laguntza galduko bakarrik baldin eta indarrean dagoen legedian aurreikusten bada irakaskuntzako beste maila edo gradu batera pasatzea aurretik egindako ikasketen jarraipena izan daitekeela. Autonomia-erkidego honetatik kanpo bekadun izan diren ikasleek bekadun-izaera egiaztatu beharko dute. Gainerako ikasleen kasuan, automatikoki egiaztatuko da hori.

4.— Oso-osoan bekarik gabe egindako ikasketak aldatzen badira, ikasketa berrietan beka lortzeko eskatzaileak utzitako ikasketetako azken ikasturtean lortu beharreko errendimendua joko da betekizuntzat.

5.— Lanbide-heziketako edo Batxilergoko ikasketak gaueko modalitatean, aurrez aurreko modalitatean edo matrikula partzialaz egiten dituztenek ezingo dituzte errentari edo egoitzari lotutako osagaien onuradun izan, eta oinarritzko bekaren eta zenbateko osagarriaren osagaia soilik eskuratu ahal izango dituzte, 8.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Halaber, dagokion ikasketa-planeari ezarritakoak baino ikasturte bat gehiagorako lortu ahal izango da beka.

6.— 900 orduko edo gutxiagoko kirol-ikasketetan matrikulatu direnek soilik oinarritzko bekaren osagaiak eta zenbateko osagarria jaso ahal izango dituzte. Iraupena 900 ordutik gorakoa bada, dagozkien osagai guztiak jaso ahal izango dituzte. Edonola ere, ikasketa horietan beka lortzeko gutxienez 400 ordu batzen dituzten modulu-kopuru batean matrikulatuta egon beharko dira.

7.— Musika-ikasketetan, hezkuntza-prozesuan bekadun gisa jarraitzeko, ikasleak landutako musika-tresna edo emandako jakintzagaia hartuko da kontuan, maila goragokoa denean.

8.— Berariazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleek, 13. artikuluko 1. apartatuko a), b) c) eta d) letretan zerrendatuta agertzen direnek, 2026-2027 ikasturtean matrikulatuta daudela egiaztatu beharko dute bakarrik.

29. artikulua.— Genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimetarako beken araubidea.

1.— Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeek, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, edozein unetan 2025eko ekainaren 30etik 2027ko ekainaren 30era bitartean emandako dokumentua aurkezten badute, bai eta hogeita bost urtetik beherako seme-alabek eta haien tutoretza edo zaintza eta jagoletza duten adingabeek ere —horiek guztiak 2025eko abenduaren 31n—, honako hauek lortu ahal izango dituzte 2026-2027 ikasturtean, betiere indarreko araudian ezarritako gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte: oinarritzko beka, errentari lotutako zenbateko finkoa, zenbateko osagarriaren osagaia eta bizilekuari lotutako zenbateko finkoa, 2. kapituluaren zerrendatutako ikasketen kasuan eta 1. kapituluaren zerrendatutako ikasketen kasuan, horretan zerrendatutako osagaiak.

Araubide bera aplikatuko zaie 2025eko abenduaren 31n adingabeak diren eta, adierazitako aldiaren, sexu-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten pertsonen, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 37. artikulua eta Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeko eta sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legearen 2.1 artikulua.

2.— Aurreko apartatuan aipatutako pertsonen ez zaizkie aplikatuko gaitzirik irakastorduei, lortutako batez besteko notari eta 2025-2026 ikasturtean matrikulatutako gutxienezko irakasgai-kopuruari dagokienez ezarritako betekizunak. Era berean, ez zaizkie aplikatuko honako hauei buruzko betekizunak: ikasketak aldatzea, bekadun gisa emandako urte-kopuruaren muga,

eta bekaren onuradun izan diren 2026-2027 ikasturtean kredituen, irakasgaien, moduluen edo horien baliokide diren orduen ehuneko jakin bat gainditzeko eskakizuna.

3.– 1. apartatuan aipatzen diren pertsonen, apartatu horretan aurreikusitako betekizunak betetzeaz gain, 2026-2027 ikasturtean, ordu, irakasgai, modulu edo ordu-kopuru baliokide hauetan matrikulatu beharko dute gutxienez:

a) Irakaskuntza artistikoetako ikasleak: 30 kreditu edo ikasturte osoaren % 50, irakasgaien arabera antolatutako irakaskuntzen kasuan.

b) Lanbide Heziketako goi-mailako graduak, Arte Plastiko eta Diseinuko eta Kirol-irakaskuntzetako ikasleak: 500 ordu.

c) Batxilergoko, Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionaletako, Lanbide Heziketako erdi-mailako graduak, Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako eta Kirol-irakaskuntzetako ikasleak: 4 irakasgai edo 500 ordu, hurrenez hurren.

### 30. artikulua.– Datuak egiaztatzea.

1.– Familia/bizikidetzaren unitateko kide konputagarri guztien datuak automatikoki ekarri ahal izateko interkomunikazio-sistema elektronikoak erabilgarri ez dauden bitartean, eskatzaileek, eskabidearekin batera, kasu bakoitzean aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte. Hori horrela izanda ere, Sailak zuzenean egiaztatu ahal izango du administrazio eskudunarekin, beharrezkotzat jotzen badu.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) eta e) artikuluen arabera –datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da erregelamendu hori–, Hezkuntza Sailak administrazio eskudunaren egiaztatutako datu kide guztien errenta eta familia/bizikidetzaren ondarea zehazteko beharrezko datuak, beka izapidetzeko erabilgarriak direnekin batera.

2.– Ikusten bada beka edo laguntza emateko beharrezkoak diren betekizunak faltsutu direla edo laguntza ukatzeko arrazoi diren gorabeherak ezkutatu direla, ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo da eskatutako beka edo laguntza.

3.– Errenta-iturriak ezkutatu gero, eskatutako beka edo laguntza ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo da. Berdin dio iturri horiek norberaren konturako lana, besteren konturako lana, pentsioak, lanbide liberaleko jardunak, nekazaritza-, abeltzaintza-, industria- edo merkataritza-ustiapenak, kapital higigarriak, finkak, ibilgailuak, aparatuak edo bestelako ondare-elementuak diren. Horrek ez du esan nahi bidezko diren gainerako egintzetatik libre geratzen denik.

4.– Administrazioak, aurreko aparatuan aipatutako ezkutatzeko hori gertatzen dela egiaztatzeko, edozein frogamota erabili ahal izango du eta, bereziki, foru-aldundietako ogasun-departamentuetan eta Ogasun Ministerioan dauden datuak.

5.– Egiaztatu beharreko datu ekonomikoak atzerrikoak badira edo Euskal Autonomia Erkidegoko foru-ogasunen esku ez badaude, eskatzaileak ondorio horietarako beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta beka edo laguntza ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo da datuok behar bezala egiaztatzen ez badira.

6.– Matrikula ezeztatzen badu edo ikasketak uzten baditu, ukatu, aldatu edo ezeztatu egingo dira eskatutako ikasketa-beka edo laguntzak.

7.– Ikasketa-beka edo laguntza ukatu, aldatu edo ezeztatu ahal izango da, baldin eta familia/ bizikidetzaren unitateek justifikatzen badituzte objektiboki gastu-maila horretatik beherago dauden diru-sarrerak baina ez badute egiaztatzen zer baliabide duten bizitzeko.

8.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek beharrezko ikusten dituzten agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte kasu bakoitzaren gorabehera bereziak behar bezala jakiteko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa enpresa txiki eta ertainen kasuan ere aplikatuko da, baldin eta horien titularrak merkataritza-sozietateak badira, kide konputagarrietakoren bat sozietate horietako bazkide, partaide eta abar bada, eta, aldi berean, sozietate horietan langile bada.

31. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskaera adin nagusiko ikasleak edo adingabe emantzipatuak egingo du; adingabe emantzipatu gabeen kasuan, berriz, legezko ordezkariak.

2.– Eskaera egiteko, eskaera-formulario telematikoa bete beharko da Hezkuntza Sailaren egoitza elektronikoa, helbide elektronikoa honetan: <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/>

Formularioan, «telefono mugikorra» eta «helbide elektronikoa» apartatuak betetzeko aukera ageri da. Horiek bete ostean, eta eskatzaileak espresuki baimentzen badu dagokion laukitxoan hala adierazita, ulertzen da eskatzaileak baimena ematen diola Hezkuntza Sailari Agindu hone-tako eranskineko 35. eta 37. artikuluetan aurreikusitakoez gain beste abisu batzuk emateko.

Aurreko apartatuan aipatutako abisu gehigarriak baimentzen ez baditu, ezin izango dira eskatzailearekin harremanetan jarri, hala badagokio, dokumentazio edo argibide gehigarriak eskatzeko.

3.– 2025-2026 ikasturtean, beka edo laguntza jaso zuten eta matrikula kudeatzeko aplikazioan jasota dauden mailetan ikasketak egiten ari diren ikasleei beteta emango zaie eskaera-formularioa. Bide telematikotik eskuratu ahal izango da formularioa helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/>. Paper-formatuan ere jaso ahal izango da ikastetxean.

Formularioan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatu ostean, edota egin beharreko aldaketak egin ondoren, eskaera aurkeztuko da:

a) Telematikoki, aplikazioan eskaera-formularioa elektronikoki sinatuta edota ikastetxean jasotako formularioan ageri den egiaztapen-kodearen bidez.

b) Formularioa paperean sinatuta, eta honako toki hauetakoren batean aurkeztuta:

– Beka-eskaeraren xede diren ikasketak egingo diren ikastetxeetan.

– Honako hauetan aipatzen diren bulegoetan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua eta ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

4.– Gainerako ikasleek modu hauetakoren batean egin ahalko dute eskaera:

a) Elektronikoki, webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-ikasleak-eskolatzeko-ikasketa-beka-eta-laguntzak/web01-a2hikas/eu/>. Urrats hauek egin beharko ditu:

a.1.– Ziurtagiri digitala (NANA, lizenpe txartela), BAKQ, edo antzekoak baliatuta sartu.

a.2.– Sistemaren erregistratu, helbide elektronikoko baten bidez eta honako elementu hauetako bat erabilita:

– HNA (Hezkuntza Nortasun Agiria) eta ikaslearen jaioteguna.

– Nortasun Agiri Nazionala (NAN), haren iraungitze-data zehaztuta. Eskatzailea atzerritarra baldin bada, atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta jaioteguna adierazi beharko ditu, eta, hala badagokio, atzerritarren identifikazio-txartelaren zenbakia (AIT). Bi kasuetan, 91/2023 Dekretuan azaltzen den datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bidez egiaztatuko da eskatzailearen identitatea (91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

Eskaera elektronikoki egin ondoren, eranskinaren 33. artikuluan zerrendatutako dokumentu eskaneatuak atxiki beharko dira, eta eskabidea elektronikoki sinatu. Soilik orduan erregistratuko da, eta eskaera egintzat joko da.

b) Paperean. Horretarako, eskaera egiteko beken aplikazioak sortutako formularioa inprimatu beharko du, edo ikastetxean eskatu. Ondoren, sinatu egin beharko du, eta hurrengo artikuluan aipatutako dokumentuak atxiki. Eskabidea honako toki hauetakoren batean aurkeztu ahalko da:

b.1.– Beka-eskaeraren xede den irakaskuntza egingo duen ikastetxean.

b.2.– Honako hauetan aipatzen diren bulegoetan: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua eta ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

32. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak eta beharrezko agiriak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2026ko irailaren 30ean amaituko da.

2.– Beka- edo laguntza-eskabideak epe horretatik kanpo aurkeztu ahal izango dira kasu hauetan:

a) Irailaren 1etik aurrerako matrikulazioetan, hilabeteko gehieneko epea ezartzen da formalizatzen direnetik hasita, baldin eta eskaera matrikulazio-eskaeraren kopiarekin egiten bada.

b) Aipatutako epeak igaro ostean, familiaren sostengatzaile nagusia hiltzen bada, edo arauzko adina betetzeagatik ez den bestelako arrazoiengatik nahitaezko erretiroa hartzen badu.

Nolanahi ere, eskabide berriak 2027ko apirilaren 30era arte soilik onartuko dira.

33. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Beka-eskabidearekin batera, 2025 ekitaldiko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Errolda-agiriaren egiaztapena ofizios egingo da, eskatzaileak eskabidean espresuki baimentzen badu. Bestela, familia/bizikidetza unitatearen ohiko bizilekuari dagokion errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, non 2025eko abenduaren 31ko egoera jaso behar baita.

Basaurin (015), Bermeon (017), Leioan (054), Ortuellan (083), Mungian (069) eta Usansolon erroldatutako eskatzaileek, betiere, aurreko paragrafoan aipatutako familia/bizikidetza unitatearen ohiko bizilekuari dagokion errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

b) Dibortzioa, banantzea, erregistratutako izatezko bikotearen desegitea edo antzeko egoerak egonez gero, dibortzio- edo banantze-epaiaren eta hitzarmen arautzailearen fotokopia, baldin eta



lehenago aurkeztu ez bada. Azken hitzarmen arautzailearen kopia aurkeztu beharko da, baldin eta haren terminoak aldatu badira. Konpentsazio-pentsioaren egiaztagiri eguneratua, beharrezkoa bada, eta seme-alabentzako mantenu-pentsioarena. Diru-sarreraren fotokopia eta aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotearen diru-sarreraren ziurtagiria.

c) Gizarte-laguntzen hartzaileen kasuan: udalaren gizarte-zerbitzuek edo beste erakunde edota elkarte ongile batzuek egindako ziurtagiria.

d) PFEZaren aitopenean zenbatzen ez diren diru-sarreraren kasuan: ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiko pentsioaren ziurtagiria, zurruntasun-pentsioarena, kalera-tzearengatiko kalte-ordainena eta abar.

e) Agindu honen 19. eta 26. artikuluetan aurreikusitako kenkariak sorraraz ditzaketen kasuak egiaztatzekeo agiriak.

f) Deialdi honen II. kapituluak aipatzen dituen irakaskuntzen kasuan, aurreko 2025-2026 ikasturtean lortutako batez besteko notaren ziurtagiria, oinarritzko mailako heziketa-zikloetan izan ezik. 2025-2026 ikasturtean ez badu ikasketarik egin, egiaztagiria egindako azken ikasturtearena izango da.

g) Honako hauek izan ezean, ikaslearen eta eskaera egiten duenaren nortasuna egiaztatzekeo agiria aurkeztu beharko da: sailaren identifikazio-zenbakia, nortasun-agiri nazionala, atzerriarren identifikazio-zenbakia edo atzerriarren identifikazio-txartela.

h) Gurasoen etxetik irten dela eta ekonomikoki independentea dela egiaztatzekeo, eskatzaileak egiaztatu beharko du bere bizileku propioan –ez gurasoen etxean– errolatuta dagoela –erositako zein alokatutako etxebizitza batean, bakarrik zein partekatuta–; edota zurruntasun-egiaztagiria, bizi-tzeko zer baliabide dituen eta egoitzaren egoera (jabetzan edo alokairuan) egiaztatu beharko du.

i) Familia-harreraren diren ikasleen kasuan, harrerari buruzko aginduaren eta dagokion aldundiak erabakitako harrera-baldintzen fotokopia, aldezturik aurkeztu ez bada.

j) Familia/bizikidetza unitatearen diru-sarrerak eta ekonomia-egoera adierazteko, eskatzaileak garrantzitsutzat jotzen dituen edozein agiri: kaleratze-kitapenak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta abar.

2.– Eskatzailea izango da eskabidean ematen duen informazio ekonomikoaren erantzule; hala, legez behartuta egongo da familia/bizikidetza unitatearen diru-sarrera eta ondare guztiak egiaztatzekeo agiriak aurkeztera. Eskatu den laguntza ukatu ahal izango da, baldin eta familia/bizikidetza unitatearen bizi-baliabide guztiak egiaztatzekeo agiriak aztertuta, Administrazioak uste badu egiaztatu diren diru-sarrerak familia/bizikidetza unitatearen gastuak baino txikiagoak direla, aurkeztu den informazioaren edo kanpoko datu batzuen arabera.

Aipatutako zergaren ondorioetarako aitortutako diru-sarreraren datuak edo zerga horretatik kanpo aitortutakoak txikiagoak badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo urte horretan errolatuta egon zen autonomia-erkidegoko laguntza baliokidearen erregulazioaren arabera familia/bizikidetza unitateari legokiokkeen zenbatekoa baino, justifikatu beharko da zergatik ez zen eskaera egin edo zergatik ukatu zitzaion, eta urte hartako bizi-baliabideak egiaztatu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren laguntzak eta beste udal-, foru- edo probintzia-laguntza batzuk, halakorik balego), udalaren gizarte-laguntzako zerbitzuek edo beste erakunde edo elkarte ongile batzuek egindako ziurtagiriaren bidez.

3.– Errenta-aitorpena beste autonomia-erkidegoren batean aurkeztu duten familia/bizikidetzak unitateek edota aurkeztutako aitortzenak diru-sarrerak guztiak ez baditu, esandakoaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Sostengatzaile nagusiaren 2025eko ekitaldiko errenta-aitorpenen (PFEZ) fotokopia guztiak eta, hala badagokio, zerga horren aitortzena egin beharra duten gainerako kide konputagarrienak. Langile autonomoak izanez gero, jardueraren etekinak kalkulatzeko aitortzenaren orria ere aurkeztu beharko da.

b) Kide konputagarri guztiek lortutako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak: gizarte-laguntzak jasotzen badituzte, dagokion erakundeak egindako ziurtagiria; PFEZaren aitortzenean zenbatzen ez diren diru-sarrerak, zenbatekoak direla-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balore higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu-korronteen interesak...

c) Profesional eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuaren aitortzenen fotokopiak.

4.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) aurkezteko obligaziorik izan ezean, kide konputagarri guztiek eskuratutako diru-sarriren egiaztapen guztiak aurkeztu beharko dira (gizarte-laguntzak jasotzeko dagokion erakundeak emandako ziurtagiria, PFEZaren aitortzenean zenbatzen ez diren diru-sarrerak, zenbatekoa dela-eta aitortu gabeko diru-sarrerak, balio higigarrien errendimenduak, banku-gordailuak, kontu korronteko interesak...); era berean, profesionalak eta enpresaburuek aurkeztutako ordainketa zatikatuengatik aitortzenen fotokopiak ere aurkeztu beharko dira, baita artikuluko lehen zenbakian jasotako informazioa ere.

5.– 13.1 artikuluko a), b) edo c) letretan jasotako hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleentzako garraio-laguntza eta -sorospenen kasuan, ikastetxearen eta familiaren bizilekuaren arteko joan-etorriak egiteko ibilgailu partikularra erabiltzeagatik egindako gastuaren egiaztapenak aurkeztu beharko dituzte, betiere ikastetxea eskatzailearen etxebizitzari dagokion eragin-eremuan badago, garraio publikorako edo eskola-garraiorako beste aukerarik ez badago eta kontzeptu beragatik laguntza bikoizturik jaso ez bada.

Hori justifikatzeko, ibilgailu partikularra erabiltzearen egiaztapen objektibo bat aurkeztu beharko da:

– Ikastetxearen ziurtagiri bat, ikaslearen ohiko bertaratzeari buruzkoa.

– Egoitzaren eta ikastetxearen arteko ibilbidearen kilometroak, erreferentzia kartografiko ofizial bitartez (Geo Euskadi).

– Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, eguneko bi bidaia hartuko dira kontuan, bata etxetik ikastetxera joateko eta bestea itzultzeko, salbu eta jantoki-zerbitzurik ez badago edo erabili ezin bada; kasu horretan, gehienez ere lau bidaia zenbatuko dira eskola-egun bakoitzeko. Laguntzaren zenbatekoa justifikatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Esleipenaren zenbatekoa kilometroko 0,29 eurotan ordainduko da.

6.– Pedagogia-berreziketako, hizkuntza-berreziketako eta adimen-gaitasun handiari lotutako zerbitzurako ikasketa-laguntzen kasuan, ikastetxearen edo berrezitzailearen memoria aurkeztu beharko da, zerbitzu horren ezaugarriak buruzko informazio zehatza jasoko duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta kurtsuaren hileko eta guztirako kostua.



7.– Guraso bakarreko familien kasuan, guraso bakarreko familiaren edo guraso bakarreko egoeraren dagoen familiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuarekin, guraso bakarreko familien araubidea arautzen duenarekin, bat etorriz.

Ziurtagiri hori ez badago eskura, deialdi honetan salbuespen gisa, honako hauek onartuko dira egiaztagiri gisa: familia-liburua edo seme-alaben jaiotzari buruzko hitzez hitzeko ziurtagiria, guraso eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmena edo zaintza eskusiboko ebazpen judiziala, bai eta adopzioari, tutoretzari, harrerari edo adopziorako zaintzari buruzko ebazpen judizialak edo administratiboak ere.

34. artikulua.– Eskatzaileen eta onuradunen betebeharrak.

1.– Eskatzaileen kasuan, eskabidea behar bezala sinatuta aurkezteak berekin ekarriko du, bere erantzukizunpean, eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.

Emantzipatu gabeko adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariak sinatu beharko du eskaera. Sinadura horrek berekin ekarriko du eskaeraren edukiaren erantzukizunpeko adierazpena, ordezkariaren adingabearen izenean, Kode Zibilarren 1903. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Adingabearen eta haren legezko ordezkariaren arteko erantzukizun solidarioaren ondorioz ez da inolaz ere sortuko, eta erantzukizuna eskaera sinatzen duen pertsonari baino ez zaio egokituko, agindu honen 33.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Horrek esan nahi du:

- a) Beka edo laguntzaren deialdiaren oinarriak onartzen dituela.
- b) Eskaeran jarritako datu guztiak egiazkoak direla.
- c) Beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen partetik bestelako beka edo laguntzarik eskuratuz gero, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako beken unitateari jakinarazi beharko diola.
- d) Beka edo laguntza jaso eta baliatu ahal izateko ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela egiaztatuko duela, eta adierazten duela ez dagoela dirulaguntzen onuradun izateko gaitasunik gabe uzten duen inolako lege-auzitan sartuta.
- e) Beka ematea bideratu zuten baldintzak bete direla egiaztatzeko beharrezko frogatze-jardueri men egingo diela, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, dirulaguntzen nondik norakoak fiskalizatzean, eskatuko dioten informazio guztia emango duela.
- f) Adieraztea, berariaz ikasketak edo ikastetxea aldatuz gero, aurreko urteetan bekadun izan dela, eta, era berean, beka eskatzen den ikasketa-maila bereko edo goragoko titulu akademiko bat izatea edo hori lortzeko legezko baldintzak betetzea.

2.– Onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Funtsak itzultzea, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan.
- b) Laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea matrikula ezeztatu dela edo laguntza emateko kontuan hartutako beste edozein baldintza aldatu dela.
- c) II. kapituluko irakaskuntzetako ikasleak: beka zertarako eman den, hartarako erabiliko duela. Egoera hauetakoren bat gertatzen bada, ulertuko da beka ez dela erabili jatorrian zuen xederako:
  - Ikastetxean baja ematea 2026-2027 ikasturtea amaitu baino lehen.

– Eskola-orduen % 80ra edo gehiagora joan ez izana, horretarako baimen edo lekapenik izan ez badu.

– Matrikulatutako ordu edo irakasgaien % 50 gainditu ez izana, ohiko edo ezohiko deialdian.

Arestiko b) apartatuan sartzen ez diren ikasleak: laguntza edo sorospena zertarako ematen den, bada horretarako erabiliko da. Ondorio horietarako, ulertuko da honako egoera hauetako batean egon direnek ez dutela laguntza erabili xede horretarako:

– Justifikatu gabe, ikastetxean baja eman izana 2026-2027 ikasturtea amaitu baino lehen.

– Emandako zerbitzuak ordaindu ez izana, baldin eta zerbitzu horiek finantzatzeko laguntza edo sorospena eman bazen.

35. artikulua.– Eskabideen kudeaketa.

1.– Beka edo laguntza zein ikastetxetarako –hezkuntza-zerbitzua ematen duena– eman, ikastetxe horrek funtzio hauek bete beharko ditu:

a) Ikastetxeko ikasleei eta familiakoei deialdiaren berri ematea; ikasketetarako laguntza edo beka bat eskuratu nahi badute, jarraitu beharreko prozeduraz eta aurkeztu beharrezko dokumentazioaz informatzea.

b) Prozesuaren jarraipena egitea, eskatzaileei behar beste informazio emanez.

c) Ikastetxeko zuzendariak edota, hala badagokio, idazkariak egiaztatuko du datuak egiazkoak direla; hain zuzen ere, laguntza edo beka eskatzeko aplikazioko konfigurazio-tauletan bete dituztenak.

d) Ikastetxean aurkeztutako paperezko eskabideak, sinatuta daudela egiaztatu ondoren, aurkeztutako dokumentazioarekin batera bideratuko dira, baldin eta ez badira eskaneatu eta beken aplikazioan erantsi. Alfabetikoki ordenatutako zerrendetan prestatu eta ikastetxeek dagokien lurralde-ordezkaritzetara bidaliko dituzte, posta elektronikoz.

2.– Lurralde-ordezkaritza eskudunak eskabide guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa jasoko ditu, eta espedienteak aztertuko ditu. Horrela, baloratuko du bekaduntzat hartzeko betekizun guztiak betetzen dituzten edo ez, eta zer osagaitarako eskubidea izango luketen, betiere Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta; izan ere, azken organo horrek bere gain hartzen du agindu honetan araututako beka eta laguntzak kudeatzeko ardura.

3.– Lurralde-ordezkaritza eskudunak interesdunari eskatuko dio egindako akatsak zuzendu edo ebazpena emateko beharrezkoak diren dokumentuak atxiki ditzala. Horretarako, beren-beregi adieraziko dio zein den zuzendu beharreko akatsa edo aurkeztu beharreko dokumentua, eta hamar egun balioduneko epea emango dio, errekerimendua egiten den egunetik zenbatzen hasita. Halaber, bertan adieraziko zaio eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta eskaera artxibatu egingo dela, aurretiaz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz horretarako ebazpena eginda. Abisua bidaliko da interesdunak eman duen gailu elektronikora edo posta elektronikoko helbidera, jakinarazpena eskuragarri duela adierazteko. Eskatzaileari bide batetik baino gehiagotatik egiten bazaio jakinarazpena, lehenik egin zaionarena hartuko da jakinarazpen-datatzat. Jakinarazpena bitarteko elektronikoz egiten denean, nahitaezkoa delako edo eskatzaileak espresuki hori aukeratu duelako, ez onartutzat joko da, edukira sartu ez bada jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igarotakoan. Eskatzaileak edo haren ordezkariak

uko egiten badiote administrazio-jarduketa baten jakinarazpena hartzeari, hala jasoko da espedientean, eta jakinarazteko ahaleginaren inguruabarrak eta bitartekoa zehaztuko dira. Horrekin, izapidea gauzatutzat joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.

36. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Unibertsitatez kanpoko laguntzak, dirulaguntzak eta bekak.

Arduraduna: Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritza.

Xedea: unibertsitatez kanpoko eta unibertsitate-graduaren baliokideak ez diren ikasketetako ikasleei laguntzak, sorospenak eta bekak ematea, eta ikasleei eskola-garraiorako laguntzak eta zuzendaritzaren gainerako laguntzak ematea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Ikastetxe publiko eta pribatuak.

– Banku-entitateak.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/043500-cap2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

37. artikulua.– Ebazteko prozedura.

1.– Lurralde-ordezkaritzetan eskabideak jaso eta gero, horiek bekak edo laguntzak emateko edo ukatzeko proposamenak bidaliko dituzte.

Lurralde-ordezkaritzek egindako proposamenen arabera, Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritzak beken edo laguntzen proposamenen prozedura izapidetuko du.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako behin-behineko proposamenak jakinarazteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira, <https://euskadi.eus> web-orrian eta Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>). Era berean, komunikazio bat bidaliko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>), eta ziurtagiri elektronikoarekin sartu beharko da bertara.

Emandako dirulaguntzetan, osagaiak eta zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epea emango da alegazioak egiteko.

3.– Alegazioak aztertu ondoren eta epea igarotakoan, aurretik egin beharreko egiaztapenak eta izapideak eginda, Hezkuntza Politiketako sailburuordeak ebazpena emango du.

Emandako dirulaguntzetan, osagaiak eta emandako zenbatekoak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, ukatutako osagaiak eta horretarako arrazoiak ere bai.

Hezkuntza Politiketako sailburuordeak onartutako ebazpenak jakinarazteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira (<https://euskadi.eus> helbidean), bai eta Hezkuntza Sailaren web-orrian ere (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>).

Prozeduraren ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

4.– Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabi-deak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori bukatu eta ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute beren eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, hargatik eragotzi gabe geroago espresuki ebaztea.

5.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, espresuki horretarako baimena eman badute, SMSak edo mezu elektronikoak igorritik eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikotara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Beken ebazpenean, jantokiaren osagaiari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, data horretan dauden datuak erabiliko dira. Ondoren, maiatzeko azken astean, aldatu egin badira jantokira joandako egunak edo beka hori emateko kontuan hartu ziren baldintzak, beka berriz kalkulatu da, deialdi honen 34. artikuluan arabera.

38. artikulua.– Beste erakunde batzuekiko lankidetza errenta eta ondarea estimatzeko.

Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuekin lankidetza kudeatuko du, baita administrazio publikoetako beste edozer erakunderekin ere, honako xede hauek lortzeko:

1.– Baliabide tekniko fiskalak erabiltzea, eskatzaileen familien errenten eta ondarearen benetako balioak neurtu ahal izateko.

2.– Kasu jakin batzuetan egiaztatze- eta kontrol-lanetarako laguntza teknikoa ematea. Eragiketa horietan eraginkortasun handiagoa lortzeko, Hezkuntza Sailak foru-aldundietako ogasun-departamentuetako Datuak Prozesatzeko Zentroei eskatuko die banaka edo bereziki ikertu behar diren kasuen zerrenda.

39. artikulua.— Laguntzen ordainketa.

1.— Laguntza dena batera ordainduko da, hilabeteko epean, Hezkuntza Politiketako sailburuordeak ebazpena ematen duenetik aurrera.

2.— Laguntzaren zenbatekoa eskabidean jasotako kontu korrontean ordainduko da, eta familia/bizikidetzaren unitateko kide konputagarri batek haren titularra izan beharko du. Ez dira hala ordainduko, ordea, kudeaketa zuzeneko jantoki-zerbitzua duten ikastetxe publikoetan ikasten duten ikasleen laguntzak; izan ere, laguntza horiek zuzenean sartuko dira ikastetxe horien kontuan.

3.— Jarritako gora jotzeko errekurtsoen ondorioz gorantz aldatu beharko balitz emandako laguntzen zenbatekoa, ordainketa osagarri bat egin beharko da hilabeteko epean, aipatutako errekurtsuak osorik edo zati batean onesten dituen ebazpena ematen den egunetik kontatzen hasita.

40. artikulua.— Aldatzea, errebokatzea eta itzultzea.

1.— Laguntza aldatzea erabaki ahal izango da beka edo laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, aldi berean beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortzen badira eta helburu bererako beste edozein diru-sarrerara edo baliabide jasotzen bada, betiere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 20. artikuluan xedatutako baldintzetan egiten bada.

Emandako laguntza aldatzeko ebazpenak espedientearen entzunaldi- eta ikustaldi-izapidea izan behar du aldeztu aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 82. artikuluan aurreikusten duen moduan.

2.— Laguntza errebokatu eta, hala badagokio, itzuli egingo da, beka edo laguntza eman den berariazko helbururako erabiltzen ez bada, laguntza eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzen ez direla egiaztatzen bada, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako gainerako kasuetan.

Errebokatzea erabaki ondoren, emandako zenbatekoa oraindik ordaindu ez bada, ezingo da ordaintzeko eskatu, eta, ordainduta egonez gero, jasotako zenbatekoak eta horien legezkotasunak itzuli beharko dira.

I. eta III. kapituluetakoa irakaskuntzetako ikasleek ikasketak uzten badituzte, emandako laguntzaren edo sorospenaren izaera kontuan hartuta, jasotako osagaiak proportzionalki itzuli beharko dira, bertan behera utzitako aldiari dagokion zenbatekoan, eskola-materialaren osagaia eta gastu gehigarri orokorretarako sorospena izan ezik, ez baitira itzuli beharko.

3.— Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa izango da itzultzeko prozedura.

4.— Itzulketa agintzen duen ebazpenean, beharrezkoa den informazioa jasoko da, itzulketa egiteko betebeharra bete ahal izateko, legezkotasunak diruz edo txekuz edo Ogasun eta Finantzetako sailburuak baimendutako beste edozein bide erabiliz. Horretarako, bi hilabeteko epea emango da, dirua itzultzeko betebeharra ezartzen duen ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Itzuli beharreko diruaren zenbatekoaren eta ikaslearen familia/bizikidetzaren unitatearen kaudimen ekonomikoaren arabera, Ogasun eta Finantza Sailak ordainketa gehienez hiru zatitan eta urtebeteko epean egitea onar dezake, interesdunak hala eskatuz gero, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan diru-bilketaren inguruan indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraituz.

Eskuratzeko zenbatekoak borondatez itzultzen ez badira, premiamendu-bideari ekingo zaio.

5.— Ikasketa-laguntzak aldatzeko, errebokatzekeo edo itzultzeko ebazpenen berri eman ahal izango zaie agintari fiskal, akademiko edo, hala badagokio, judizialei, sor daitezkeen gainerako erantzukizunak eskatzeko.

41. artikulua.— Bateragarritasuna.

Eranskin honetan araututako ikasketa-laguntzak, bekak eta sorospenak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik ikasketa berberetarako jaso daitezkeen beste edozein onurarekin, betiere horiek guztiak batuta ez bada gainditzen laguntzaren xede den gastuaren % 100. Kasu horretan, dagokion zenbatekoa murriztu egingo da.

2026-2027 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egiteko beka jasotzen duten ikasleek ezingo dute jaso eranskin honetan araututako ikasketa-laguntzarik, bekarik eta sorospenik.

42. artikulua.— Ikuskatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ahalmena izango du datuak benetakoak direla eskatzeko eta egiaztatzekeo egintzak abiarazteko, bai eta eranskin honetan araututakoa betearaztekeo ere.